



MUSIKA

Izan ginena lurpetik atera



LA EXCAVADORA

LA EXCAVADORA

MAUKA MUSIKAGINTZA

IKER BARANDIARAN

Azken garai luzean bizitza tristea tokatu zaigu, edonor amorratzeko modukoa; hainbeste, ezen irudikatu nahi ez genuen europar kutsuko etorkizun antisozial, etxetik-lanera-lanetik-etxera, lagun, *garito* eta rock-and-rollik gabekoa bertan baitaukagu. Eta ez dakigu buelta noiz eman ahal izango diogun. Bada, halako testuinguruan, eskarmentu dezente eta izen onik ez duten Arabako bost musikaririk izan ginena lurpetik berriro ateratzeko asmoz hondeamakina martxan jarri dute eta bazterrak nahasteko asmo sutsua daukate. Izan ere, ez daukate ezer galtzeko!

Gatillazo eta La Polla taldeetan luzaroan aritutako Txiki kantak idazten hasi zen eta Gatillazo, Rockaina eta Salvate Si

Puedes-eko partaide eta lagun Angelillo idazteari batu zitzaion gero. Handik gutxira heldu ziren Buton (Gatillazo, Al Karajo), Mikel (Childrain, Vicepresidentes) eta Pela (Obligas, Sumision City Blues, Marky Ramone...), bakoitza bere etxekoa, baina egoeraz nazkatuta beren alea jarri eta emaitza aberasteko gogoz.

Txikiren kanteak Arabako lautadako punk-rock etiketadun oinarria dute – ezin du hori ezkutatu –, baina kantei ñabardura askoz gehiago batzen zaizkie, tartean hard-rocka eta rock urbanoa, kaletarra deitzen zaiona. Boskoteak lortu du soinu borobila.

Hala, Arabako lautadako eta 1977ko punkaren riff itsaskorak batez ere *Mala música* eta *Ceniza* piezatan agertu

arren, badira bestelakoak ere: hauspotu eta punk-rock oldarkorragoa egiten dute *Kimika*, *La fábrica de gas* eta *Animalesen* gisako kantetan. Ukitu kaltetarra nagusitzen da gainontzeko kantetan. Hitzetan erabat gordinak dira *Futuro* eta *Viejas mentiras de viernes*, *Perder el vicio*-k 80ko hamarkadako arrasto handia dauka, *Contra el suelo* balada bat da, *La reina de la fiesta se hace esperar* su garrak dituen hard-rockean biderkatzen da, *La excavadora* keinu berezia egiten die rock-and-roll *garitoetan* batzen ziren langileei, eta azkenik, *Tiempos diferentes* hainbat belaunaldi batzen dituen hit-a da.

Diskoa urtarilaren bukaeran izango da eskuragarri. ●